



Euskara ofiziala izatearen alde

LEITZA ▶ Oinarriak-ek eta Euskara Batzordeak deituta, bilkura egin dute asteburuan

NAFARROA ▶ Nafarroa osorako ofizialtasuna eskatzen dute esparru guztietan ▶ 7

TOLOSA ▶

Lidergoan sendo jarraitzen du Tolosak, txukun jokatuta

Aretxabaletan 1-2 irabazi zuen igandean; Lasak sartu zituen urdinen bi golak ▶ 2



San Joan kalea oinezkoentzat izango da

ALEGIA ▶ San Joan eta Bidebarrieta kaleetako bizilagunek hala erabaki dute asteburuan egindako galdeketa; parte-hartze handia izan da ▶ 5




Sagarren hitza

hitzaren sagardotegia

STOCKHOLM S taldea +
bertsolariak, trikitalariak...

otsailak 19, larunbata

SARRERAK:

- ▶ 8 euro (afaria + sagardoa)
- ▶ 5 euro (sagardoa)

Afaria: saiheskiak, letxuga, gazta eta intxaurrak.

Sagardoa: nahi adina, upeletatik.

TXARTELAK HONAKO LEKUETAN:

- ▶ ZARAUZ ▶ Hitzaren egoitza + Txiki-Polit
- ▶ ZESTOA ▶ Koiote taberna
- ▶ AZPEITIA ▶ Hitzaren egoitza
- ▶ ZUMAIA ▶ Gaur eta bihar BALEIKEREN azoka
- ▶ GETARIA ▶ Mahasti taberna
- ▶ ORIO ▶ Unar eta Kolon-txiki tabernak

20:30etik aurrera

ZARAUZKO

MERKATU PLAZAN

(Komeni da txartelak lehenbailehen erostea)

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldeia. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldeia. Osasun eb.: 672411
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larriald.: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxis: 67 04 20
 ▶ Taxis (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Iturrioz, I. Euskal Herria 3 (Ibarra). 943 67 09 15
 Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza), 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaldeia. 687 41 00 22
 anoetaldeia@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldeia. 687 41 00 32.
 ibarraldeia@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitza. 687 41 01 18.
 leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Emakumezkoa. Neska edo andre bat behar da ume bat zaintzeko eta ebeko lanak egiteko. 635 700 936 (arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara).

SALGAI

Autoa. Autoa salgai. Peugeot 206 XS 1400. Gasolina. 626 43 26 26.
Furgoneta. Furgoneta Renault Kangu Mixta 1.9 diesel salgai. 6 urte. Telefona: 649 51 18 70.

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

1. Maila A.
 Ibarra-Virgen de Vico 2-1

1. Maila B.
 Laskorain-Santurtzi 8-5

Liga Autonomikoa.
 T.Lakunza-Inxaurren 8-2

Nesken Liga.
 Tinta-Idiazabal 2-3

ESKU PILOTA

EUSKAL HERRIKO ELKARTEEN ARTEKO TXAPELKETA

Gazteak.
 Aurrera Saiatz-Irurzun 11-22 (Koldo Galarraga)

22 urte azpikoak.

Igorre-Aurrera Saiatz 18-22 (Igor Aranzabe)
 Joko Alai-Aurrera Saiatz 08-22 (Imanol Pastrain-Aimar Galarraga)

UDABERRI TXAPELKETA

Gazteen 1. maila.
 Aurrera Saiatz-Hernani 22-02 (Xigor Telleria-Joseba Senperena)

Nagusien 3. maila.

Gure Txerur-Aurrera Saiatz 22-04 (Xuban Pikabea-Garikoitz Galarraga)

GARZIANDIA TXAPELKETA

Izagirre-Irureda / Lizarra-Aranalde 22-8
 Dani-Cerezo / Renobales-Belloso 5-22
 Errea-Urzaikina / Gonzalez-Setien 7-22

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Aretxabaleta-Tolosa 1-2
 Saikapena ▶
1. Tolosa 49 puntu
 2. UPV/EHU 48 puntu
 3. Ordizia 47 puntu
 4. Zarautz 42 puntu
 5. Trintkerpe 37 puntu
 6. Touring 35 puntu
 7. Pasajes 35 puntu
 8. Real Union B 33 puntu
 9. Orioko 32 puntu
 10. Mondragon 31 puntu
 11. Anaitasuna 30 puntu
 12. Zestoa 30 puntu
 13. Hondarribia 28 puntu
 14. Aretxabaleta 27 puntu
 15. Urola 26 puntu
 16. Mutriku 26 puntu
 17. Aloña Mendi 25 puntu
 18. Bergara 25 puntu
 19. Beti Gazte 23 puntu
 20. Oiarzun 15 puntu

Nesken Liga. Igoera fasea.

Tolosa-Inxaurre 2-4

Lurraldeko 1. Maila.

Bidezarra-Aurrera 2-3
 Gure Txokoa-Tolosa B 2-1
 Saikapena ▶
 1. Allerru 39 puntu
 2. Euskalduna 38 puntu
 3. Martutene 36 puntu
 4. Irun 1902 36 puntu
 5. Beti Ona 32 puntu
 6. Behobia 31 puntu
 7. Astigarragako 29 puntu
 8. Lengokoak 29 puntu
 9. Vasconia 28 puntu
 10. Mariño 26 puntu
 11. Ostadar 22 puntu
 12. Roteta 22 puntu
 13. Gure Txokoa 21 puntu
 14. Amara Berri 16 puntu
 15. Ordizia 12 puntu
16. Tolosa B 9 puntu

Lurraldeko 2. Maila.

Kopa.
 Danena-Usurbil 1-2
 Hondarribia-Inxurre 2-1
 Amaro-Lasarte Oriá 1-1
 Saikapena (I. multzoa) ▶
 1. Lagun Onak 12 puntu
5. Danena 3 puntu
 7. Gazteak 1 puntu
 Saikapena (II. multzoa) ▶
 1. Dunboa 9 puntu
6. Inxurre 3 puntu
 7. Sanpedrotarra 3 puntu

Saikapena (IV. multzoa) ▶

1. La Salle 10 puntu
5. Amaro 4 puntu
 7. Donibane 0 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa-Elgoibar 4-1

Jubenilen 1. Maila.

Hernani-Billabona 5-3
 Añorga-Inxurre 3-1

Kadeteen Euskal Liga.

San Viator-Tolosa 1-3

ZESTA-PUNTA

EUSKAL HERRIKO ELKARTEEN ARTEKOA

Alebinak.

Laskorain-Maria eta Jose 15-04, 15-03

Infantilak.

Danak Bat-Beotibar 04-30

Kadeteak.

Beotibar-Noain 1 30-20

Jubenilak.

Donostia Jai Alai-Beotibar 35-26

Nagusiak.

Donostia Jai Alai 2-Beotibar 2 09-12*

*partida bertan behera, Donostiako pilotari batek mina hartu zuelako
 Gazteleku 2-Beotibar 1 ?

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Txukun eta sendo

1-2 irabazi dio Gorengo mailako Tolosak Aretxabaletari; partida txukuna jokatu zuten urdinek, eta lider segitzen dute

LEIRE MONTES

Partida txukuna jokatu zuten igandean Gorengo mailako Tolosak. Joko ona eginez, 1-2 irabazi zion Aretxabaletari. Hiru puntu horiei esker, saikapean sendo jarraitzen dute urdinek, 49 punturakin. EHU dute atzetik, puntu batera; eta Ordizia da hirugarren, 47 punturakin. Bi talde horiek ere irabazi dituzte asteburuko partidak —EHUK 2-3 Mutrikuri, eta Ordiziak 3-0 Oiarzuni—; hor-taz, aldeek bere horretan jarraitzen dute.

Galtzen hasi zuten Tolosak. Atzelariak huts egin, eta Rodriguezek sartu zuen etxekoan lehen gola, 24. minutuan. Gol horrek min handia egin zien urdinei: «Hiruzpalau minutu egon ginen burua altxatu ezinik, partidatik kanpo, oso gaizki jokatu», azaldu du Jose Mari San Sebastian taldeko delegatuak. Aretxabaletak beste bi gol aukera ere izan zituen, baina Ape-



Tolosako jokalariek, Hondarribiaren aurkako gola ospatzen, Berazubini, artxiboko irudi batean. MADDI SOROA

ARETXABALETA ▶ 1 TOLOSA ▶ 2

Aretxabaleta. Eriz, Arana, Erostarbe, Iturbe, Armendariz, Rodriguez (Nuñez, 82m.), Gonzalez (Uribetxeberria, 77m.), Canas, Arriaga (Azkué, 77m.), Garcia (Sanchez, 86m.), Igartua (Vadillo, 85m.).

Tolosa. Apezteba, Aimar, Jon, Aierbe, Artola (Ilunbe, 51m.), Romero, Orue, Zuloaga, Lasa (Aranguren, 88m.), Prados (Garagarza, 78m.), Elola (Blanco, 61m.).

Golak. 1-0: Rodriguezek (24m.); 1-1: Lasak (52m.); 1-2: Lasak (70m.).

zetxea atezainak bikain gelditu zituen.

«Indarberriturik» ekin zioten bigarren zatiari Tolosakoek: «Joko ona eskaini zuten jokalariek, zelaiaren ondo kokatu-ta... Bikain aritu ginen, partida polita izan zen». Korner baten ondoren sartu zuen Lasak berdinketaren gola, 52. minutuan. Eta berak ezarri zuen behin betiko 1-2koa, 70.ean, Jonék atezainarekin baxu baxu baxu bidali zuen baloia 80. minutuan, eta lau beranduago Orueren jaurtiketa bikaina gelditu zuen Aretxabaletako atezainak. Gol gehiago sartzeko aukera izan zuen, beraz, Tolosak, baina arduradunak pozik dira lortutakoarekin: «Hiru puntuak etxera ekartzea ezinbestekoa zen, eta lortu ditugu». Gainera, Aretxabaletako «giro zakarrari» aurre egitea ez da erraza: «Bagenekien ez ginelako eraso sentituko. Aretxabaletako ikuslegoa oso gaiztoa da, etxean eta kanpoan. Baina guk hori ahaztu eta jokatzen atera ginen, gogotsu».

Larunbatean Pasajes hartuko dute urdinek Berazubini. 7. postuan dira pasaitarrak, 14 puntura. Baina San Sebastianentzat «ez dago partida errazik». 16:30ean hasiko da lehia.

MENDIA ▶

Dima eta Areatza arteko mendi ibilaldia igandean

Alpino Uzturre elkartek mendi irteera antolatu du hilaren 20rako, igandea, Dimatik Areatzara (Bizkaia). Bost orduko ibilaldia izango da, eta Urrekoatxa (588m.) eta Bargondia (541m.) gainak igoko dituzte mendizaleek. Gainera, Jentilzubi eta Balzolak leizezuloetatik pasatuko direnez, antolatzaileek linterna eramatea eskatu dute. Bazkideek 10 euro eta gainerakoek 12 ordaindu beharko du-te. Izena emateko, Alpino Uzturre elkartek Gudari kalean duen egoitzara joan edo 943 65 27 89 zenbakira deitu.

HEZKUNTZA ▶

DBHn hasiko direnen gurasoek bilera Orixen

Orixen institutuak bilera antolatu du 2005-06 ikasturtean DBHko 1. mailan hasiko diren ikasleen gurasoentzat. Bihar, 17:00etan izango da batzarrak, Institutuan bertan, eta «seme-alabek hasiko duten etapa berriaren ezaugarriak ezagutzeko aukera» izango dute. Matrikula epea hilaren 25a arte izango da zabalik.

OSASUNA ▶

Bularreko minbiziari buruz, solasaldia bihar

Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbiziaren Elkarteak Emakumeen Elkarteak antolatuta, *Bularreko minbiziaren goiz detektatzea* hitzaldia izango da bihar, 18:00etatik aurrera, Kultur Etxean. Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuen departamentuaren laguntza du ekimenak, eta Donostiako Institutu Onkologikoko Lourdes Aritziturri sendagileak gidatuko du solasaldia.

GIZARTEA ▶

KZguneko ikastaroetarako izen-ematea

KZguneko Internet ikastarok honakoak dira: 21etik 25era 09:00-13:00 edo 18:00-20:00. Izena eman nahi dutenek bertara joan behar dute.

ESKIA ▶

Iraupen eskiko altxorrak

Alpino Uzturre elkartekoek garaipen garrantzitsuak lortu dituzte: horien artean, Joseba Rojok Suedian izango den Munduko Txapelketarako txartela lortu du

IRATXE ETXEBESTE

«Elurra Tolosatik gertu dugun garai honetan, iraupen eskiko txapelketa egutegiaren proba dezente ospatu ditugu honezkeron», eta, horrexegatik, Alpino Uzturre elkarteko eski taldeko partaideek lortutakoaren orain arteko balantzea egin digute mendi elkarteko ordezkariak.

«Gure konpetizio probak Pirinioetan ospatzen dira, hemen gertu dugun elurra iritsiko den ez baitaukagu ziurtatuta. Beraz, Aralarren antolatzen ziren probak historia dira jada. Candanchu eta Somport dira orain gure ohiko bilduleku, biak oso gertu. Hala ere, Nafarroako Abodira eta Belaguara, Benasquera edota Aran bailarako Beretara joaten gara bertako probetan parte hartzeko. Eta entrenatzeko, Pirinio iparraldean zenbait toki zoragarri gozatzeko aukera izaten dugu (Beille, Val d'Azun, Pont d'Espagne...). Eta izenak ikusita jabetuko zarete, asteburuero eta zubiak izaten direnean, kilometro mordo bat egin beharra daukagula elurraren bila joateko. Gure lehiakide batzuek, ordea, etxe ondo-ondoan dute elurra».

Taldeko partaideen balantzea eginez, beteranoenek «ilusio handiarekin» eusten diote lehiaketari eta emaitza onak lortu dituzte Txiki Plazasek eta Peio Gorostegik. Txiki entrenatzaile ardura hartu du eta gaztetxoenei proba aurreko prestaketa laguntzen «nahikoa lana badu —argizariak probatu, ematen lagundu...—» eta ia berotu gabe hasi behar du lehiari. Hala ere, Espainiako beteranoen artean, Mayencos proban hirugarren eta Bereten bigarren sailkatu da. Junior mailan, Aitor Igarategi irabazle izan da zenbait probatan. «partaidetza txikia» izan arren.

«Kadete mailan dugu korrikalari multzo handiena eta etorkizun handikoena», esan dute Alpino Uzturrekoek. Horien artean Joseba Rojo da emaitza bikainenak lortu dituen eskiatzailea. Nafar, aragoiar eta euskaldunen arteko probetan beti irabazle ateratzen da, bai klasiko probetan bai estilo librekoetan. «Kataluniako eta Andaluziako profesionalak agertzen direnean ere haien parean dabil. Eta horrela, zailtasunak zailtasun eta asko entrenatu ondoren, saritxo bat



Iraupen eskiko probetan parte hartzen duten Alpino Uzturre elkarteko partaideak iaz elurretan. HITZA

jaso du, aukeratua izan baita, hilaren 20tik 24era bitartean, Gallivare herrian (Suedia) izango diren Munduko Txapelketa Eskolarrean parte hartzeko. Kristoren hotza pasatu beharko du, baina esperientzia ez da makala izango».

Gainerako kadeteekin jarraituz, Jon Saizarrek eta Xabier Murgiak lehia bizia dute elkarrekin, eta klasiko estiloan hoberen moldatzen bada Saizar, estilo librean Murgiak badaki aurrea hartzen. «Bi kirolari hauek ez daude hain kontzentratuta eskian, tarteka atletismo eta triatlloi probetan hartzen baitute parte. Biak, hala ere, podiumera igotzen ohi dira orain arteko probetan». Bestalde, Ibai Mendiak prestaketa fisiko «oso ona» du, baina urte gutxiago daramatza kirol horretan, eta «teknikoki asko hobetu behar du». Egoera be-

rean dago Estanis Arsuaga ere. Nesketan, Erea Lopez oso gogotsu dabil eta hobetzen ari da.

Agitxuloak ere, aurrera

«Agilutxoetan sartuta, bi irabazle ditugu taldean: Erlantz Gonzalez eta Imanol Rojo. Lehenengo bi postuetan txandakatzen ohi dira, baina Bereten Urtzi Murgiak —Aragoiko Mayencos taldeko korrikalariak— aurre hartu zien eta ondo entrenatu beharko dute denboraldi bukaeran izango duten Espainiako Txapelketan orain bezala aurrez-aurre egon nahi badute. Gero, lehenengo biren artean, hoberenak irabaz dezala», diote Alpino Uzturreko ordezkariak.

Nesketan, Eneritz Gonzalezek emaitza onak lortu ditu orain arteko probetan, «baina gogo gehixeago jarri beharko

du hemendik aurrera aurrera egingo badu».

Benjaminetan hasiberria da Xabier Saizar, eta postu onak lortu ditu, lasterketa batzuk irabaziz. «Elkarteko ateak irekita ditugu bere adinekoek kirol horretan hasi nahi badute; aukera polita dute datorren martxoaren 5-6ko eta 12-13ko asteburuetan, ikastaro oso merkea antolatzen baitugu iraupen eskia egin nahi dutenentzat eta konpetizioan hasi nahi dutenentzat. Animatzen bazarete, Alpino Uzturre elkartera jo, astelehenetik ostegunera, 19:30etik 20:30era.

Eski proba asko burutu dira honezkeron, baina denboraldia amaitzeko batzuk falta dira oraindik: «Martxo bukaera arte probak ditugu, eta, bukatzeko, berriz, Espainiako Txapelketa. Joseba Rojok, gainera, Munduko Txapelketa ere bai».

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK
ETXESAGASTI

Villabona. Ebebizitza altua igogailuarekin. Egongela-sukaldea, 3 logela eta bainugela. Egoera ezin hobean. Eguzkia egun osoan. 41.200.000 pezeta. 943 69 68 56.
Tolosa. Gazteentzat ezin hobea. 70 m2. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Berritua. 35.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Alkiza. Txalet indibiduala terrenoarekin. Kapritxora egina. Informazio pertsonala. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ibarra. 85 m2-ko etxebizitza salgai; egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera. Trastelekuarekin. Bizitzera sartzeko. 33.500.000 pezeta (negoziazgarriak). Inmo Etxesagasti. 943 696856.

Ordizia. Apartamentua erdialdean. Erabat berritua. Eguzkitsua. Modernoa. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Modernoa. Kapritxora berritua. 70 m2. Argitsua. Trastelekuarekin. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Hainbat etxebizitza: berritzeko, berritua, eraikuntza berrikoak. 33.000.000 pezetatik aurrera. Inmo Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Txalet indibiduala. 110m2x3 altuera. Terrenoa: 2.500 m2. Gune egokian.
Pisuak, txaletak, baserriak, nekazaritza eta hirigintzarako lursailak... behar dira, eskaera handiagatik, alokairuan edo salgai jartzeko. 943 69 68 56.

VILLABONA ▶ MENDIA



Fraileburu izeneko arroka ikusuteko aukera izango da. HITZA

Urduña eta Aiarako paisaia ikusgarriak

‘Euskal Herriko hiriburuak uztartuz’ baitan Aizkardikoen ibilaldia igandean

IMANOL GARCIA

Villabonako Aizkardi mendizale taldeak, *Euskal Herriko hiriburuak uztartuz* egitasmoarekin jarraituz, seigarren sektoreko (Gasteiz eta Bilbo artekoa) Urduña-Ahedo Angulo ibilaldia proposatzen dute datorren iganderako, hilak 20.

Ibilaldiari Tartangan eman-giote hasiera eta Koba-Aun-

di bezala ezaguturiko kobazulo batzuetatik pasaz Fraileburu (860m) mendira igoko dira. Mendi horretatik Txartalazo (Virgen de Txartalazo) tontorrera joango dira. Salbada mendilerrotik jarraituko dute eta ondorengoko gainak zehar-ratuko dituzte: Txolope (1.035 metro), Solaiera (1.039 metro), Bedarbide (1.041 metro), Fuente de La Lastrilla (1.130



Unginoko begitik begiratzeko parada izango dute mendizaleek. HITZA



Ungino izango da zeharkatuko diren puntuetako bat. HITZA

metro), Ungino (1.105 metro), Eskutxi (1.135 metro) eta Aro Gaña.

Azken leku horretan hasiko dira Angulo gainean amaitzen den etaparen jetsiera Aro Atekatik pasaz. Trabesia guzti horretan zehar Urduña eta Aiara-ko paraje zoragarriez gozatze-ko aukera izango dute ibilaldira joaten diren mendizaleek eta Garobelgo (Salbada) harresi handia zeharkatu ahal izateko igarobide ezberdinak pasaz joango gara.

Zeharkaldi honen iraupena zazpi ordu ingurukoa da, 23 kilometro inguru ibiliaz. Zehar-

IBILBIDEA

Zeharkaldiaren iraupena zazpi ordu ingurukoa da eta 23 kilometro burutuko dira

kaldi honetan izena emateko, 943 69 44 58 telefonora deitu behar da eta Joxanetaz galdetu edo Aizkardi elkartearen arentora joan ostegunean, 21:00-etatik 22:00etara. Irteera goizeko 7:00etan izango da Olaederri kiroldegitik.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOAK IKAS KOMUNITATEA



PEDRO M^a OTANO HERRI ESCOLA

Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkuntza.net

VILLABONA ▶

Drogek sortzen duten menpekotasuna hizpide gaur

Jesusen Bihotza Ikastolak antolatutako hitzaldia, gaur arratsaldean Gurean

I. GARCIA

Jesusen Bihotza Ikastolatik *Drogomenpekotasunaren prebentzioa* izenburua duen hitzaldia antolatu dute. Kutxako Gaztetxoan Elkartearen laguntzarekin. Gaur bertan izango da hitzaldi-solosaldea, Gurea aretoko erakusgelan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

Deialdia guraso guztiei zuzendua bada ere, DBH ikasle- en gurasoak bereziki animatzen dituzte Jesusen Bihotza Ikastolatik parte hartzera. Saio honetan, familian drogen kontsumoarekin lotutako arazoak saihesteko edo murrizteko dauden aukerak eta baliabideak aztertuko dira.

Irakasleek ere prestakuntza-saio bat egingo dute ikastolan bertan. Jardunaldi horretan, eskola-esparruan burutu daitezkeen prebentziorako oinarri teorikoak landuko dira eta ikasgeletan drogei buruzko hezkuntza-programak garatu ahal izateko metodologia aztertuko da.

ZIZURKIL ▶

Korrika Batzordeko bilera gaur Atxulondon

I. GARCIA

Zizurkilgo Korrika batzordekoak asteartero egiten dute bilera Atxulondo kultur etxean. Eta gaur ere egingo dute, arratsaldeko 19:30ean hasita. Dagoeneko hiru batzorde bilerara egin badituzte ere, oraindik azaldu ez denak ere badu joateko aukera. Jorrazten ari diren gaietako bat, haurrei dagokienez, Korrika-txikian haur etorkinek lekukoa hartzea da. Zenbait haur kanpotik etorri eta euskara ikasteko egiten ari diren esfortzuari, nolabait, errekonozimendu bat ematearren.



Pertsonak hezitzea
eta osatzea
gure erronka

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

— 2-16 urte bitarteko hezkuntza —
Villabona eta Zizurkilgo ikastola

- Euskalduna eta eleanitza
- Kalitatezko Hezkuntza
- Esperientziaduna

943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)
943 69 20 58 (Txermin auza • Villabona)
943 69 12 75 (Elbarrena auzoa • Zizurkil)

billabona@ikastola.net

ALEGIA ▶ AZPIEGITURAK

San Joan kalea oinezko bihurtzea erabaki du herriak

Alegiarren partaidetza altua izan da asteburuan zehar; 570 lagun zeuden erroldan eta erdiak eman du bere botoa



Behin bi egunetako kontsulta amaituta kontaketa publikoa egin zuten igande eguadian plazan. HITZA

NOELIA LATABURU

Asteburu berezia bizitu dute alegiarrek. Izan ere, larunbata eta igandea bitartean San Joan eta Bideberrieta kaleetako biztanleek baiezkoa eman diote San Joan kalea oinezko bihurtzeari. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jendea ez zen etxean geratu eta plazan ezarritako karparaino gerturatu zen, bere papertxoetan euren iritzia luzatzeko. Igande eguadian bertan zenbatu ziren botoak, kontaketa publiko batean.

Erroldako zerrendan 570 alegiarren izenak zeuden, San Joan kaleko eta Bideberrietako komertzio eta biztanleak, hain zuzen ere. Horietatik 284 lagunek bozkatu zuten. Gehiengoak, 187, peatonalizazioaren alde egin zuten herri kontsultan. Beste 96 biztanleek oinezko izatearen aurka bozkatu zuten eta, horren ordez, aparkaleku bat eraikitzearen alde azaldu ziren. Azken paper bat, berriz, baliogabeturik geratu zen. Maila guztietako, adin guztietako eta pentsaera guztieta-ko jendeak bozkatu zuen.

Parte hartze batzordea oso pozik azaldu zen kontsultaren nondik norakoekin. «Herriak

oso ondo erantzun du eta nola gainera, partaidetza handia izan baita». Kontaketa egin bezain laister lehen balorazio baikorra egin zuen batzordeak, beraz. «Beldur ere baginen jendeak ez ote zuen erantzun-go baina honek argi erakusten du herritarrei bideak jarriz gero prest dagoela eztabaidetan erabakiak hartzeko inolako beldurrik gabe», adierazi du batzordeak pozik. Era berean, partaide guztiei eskerrak eman nahi izan die eta «herriaren ematen diren aurrekontuak bezalako proiektuetan ere parte har dezakeela» azpimarratu nahi izan du.

HERRI GALDEKETA ▶

284 alegiarrek hartu zuten orora parte asteburuan erreferendumean. Hautesle errolda 570ekoa zen. %49,82a joan zen, beraz, botoa ematera.

BOTOEN EMAITZAK

Errolda guztira. 570.
Oinezkotzearen aldekoak. %65,85 (187 boto)
Aparkalekuaren aldekoak. %34,15 (96 boto)
Baliogabetua. 1

Bai Euskarari Ziuertagiriaren zozketa Tolosaldean



- Tolosaldean 55 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek lortu eta erabiltzen dute Bai Euskarari Ziuertagiria.
- Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!

Kontseiluak eskerrak eman nahi dizkie zozketa honetan parte hartu duten herritar guztiei!



'Berdinen arteko eraso eskolan' hitzaldia, atzo

ALEGIA ▶ Hogei lagun inguru bildu zituen *Berdinen arteko eraso eskolan* hitzaldia, atzo arratsaldean Alegiako Kultur Etxeko batzar aretoan. Alegiako Udalak eta San Joan eskolako Elkarteak antolatu duten hitzaldi ziklo honetan beste bi hitzaldi izango dira, datozen bi astelehenetan, biak ala biak familian sortzen diren gatazka eta elkarbizitzaren ingurukoak. Atzokoan hizlaria Amaia Agirre Muñoa izan zen eta beste gaien artean *bullying*-aren gainean mintzatu zen bera. NOELIA LATABURU

ALEGIA ▶

Eskulan tailerrean izena emateko azken eguna

Alegiako Kultur Etxean eskulanak egiteko ikastaroa antolatu dute. Bertan izena emateko azken eguna da gaur. Kuota 36 eurokoa izango da. Taldea mugatua izango da, 10 lagun ingurukoa. Martxoan hasi, eta maiatza bitartean, 22 orduko iraupena izango du. Orduetgia oraindik finkatzeko dago.

AMEZKETA ▶

Zazpi Iturri kanporatu zuten Berria Txapelketan

Amezketako Zazpi Iturri pilota taldea II. Berria Txapelketatik kanporatua izan zen, ostiraleko hiru partidak jokatu ostean. Zazpi Iturrikoak aurreko urteko I. Berria Txapelketako irabazleak dira, baina aurten final hamaseirenetan geratu dira, Lemoako hiru bikoteen aurka 55-51 galdu baitzuten.

UZTURPE IKASTOLA

'IBARRAN KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKALDUNA ESKAINTZEN'

- Uzturpe udal haur eskola. 0-3 urte
- Uzturpe ikastola. 3-16 urte
- Txontxo udal ludoteka. 2-8 urte

MATRIKULA EPEA
OTSAILAK 14tik 25era
Deitu eta bisita antolatuko dugu
(9:00-12:30 / 14:30-18:00)

IBARRAKO UDALA
Egialde, 2 • IBARRA • Tel.: 943671299 • ibarra@ikastola.net

IBARRA ▶ KIROLAK

Merezitako garaipena Ibarrarentzat Virgen de Vico ren aurka

Lan handia egin eta gero aurkariaren defentsa indartsuari aurre egin zion; jubenilen partida bertan behera geratu zen

IÑIGO TERRADILLOS

Gogor ekin beharra izan zuen Ibarra areto futbol taldeak larunbatean Belabieta kiroldegian jokatu zuten patidan garaipena lortzeko. Izan ere, Virgen de Vico talde indartsuaren aurka lehiatu ziren ibartarrak eta hauen defentsa handiari aurre egin ondoren 2-1eko markagailuari eutsi ahal izan zieten partidaren amaierararte.

Norgehiagoka ezin hobeto hasi zen etxeko taldearentzat, bigarren minuturako aurretik jarri baitzen. Cristianek baloia lapurtu zuen erdigunean eta diagonalean bigarren zutoinera bidali ondoren Labakak atera jaurti zuen; atezainak urrundu egin zuen baloia, baina Labakari etorri zitzaion berriro eta bigarrenean ez zuen barkatu. 1-0 ekoa zen eta armailetan poza nabaria zen partida ikustera joan ziren hainbat eta hainbat zaleren artean.

Erasoan jarraitzen Ibarrak Virgen de Vico taldea etxekoan areara ia irlsten ez zen bitartean, hori bai kanpoko jaurtike tekin ari ziren saiatzeko. Eta Ibarrak markagailuan zuen aldea handitzeko aukerak izan bazituen ere 1-0koarekin iritsi ziren atsedenaldira.

Ez da hau alde nabaria areto futbolean eta edozein unetan etor zitekeen berdinketa. Eta halaxe izan zen, Virgen de Vico taldeak bigarren zatiko lehenengo minutuan berdinketaren gola egin baitzuen. Min handia egin zion gol honek Ibarrari eta urduritasuna areagotu zen jokalarien artean, hiru puntuak lortzea oso garrantzitsua baitzen eta ezin zitzaizkien ihes egiten utzi.

Pixkanaka, ordea, hasierako egoerara bueltatu ziren ibartarrak, eta joko ona egiten hasi ziren. Horrela, bigarren zatia erdialdera Ibarraren aldeko falta ikusi zuen epaileak eta jokaldi honetan jarri ziren berriro ere aurretik etxekoak. Hain zuzen ere, Karrerak Labakari bidali zion baloia eta sarean sartzea lortu zuen.

Aurretik ziren Ibarrakoak, baina oraindik ere astia zuten aurkakoei berdintzeko eta eutsi beharra zegoen. Azken bi minutuetan, Virgen de Vico taldea azken saiakerak egiteari jardun zenean urduritu egin ziren etxekoak, baina ez zen markagailua aldatu defentsan lan handia egin baitzuten.

Garrantzi handiko hiru puntuak etxean geratu ziren, beraz, eta lasaitasun apur bat izan dezake orain taldeak, baina ja-



2-1 irabazi zuen Ibarra. I.T.

rraitu egin behar da puntuak batzeko lanean.

Jubenilen mailan

Gaztelueta taldearen aurka jokatu behar zuen pasa den larunbatean Lauburuk, baina zazpi jokalarirekin soilik azaldu zirela eta partida bertan behera geratu zen gutxienez zortzi jokalariz itzate eskatzen baitu araudiak. Beraz, kasu honetan ere, hiru puntuak Ibarran geratu ziren Ibarrakoen zorionerako.

LEABURU ▶ KIROLAK

Arrospidek ezin izan zuen finalerako sailkatu

Larretxea eta Mindegia pasatu dira finalera leaburuarra eta Ugarteburu garaitu ostean

I.TERRADILLOS

Herenegun jokatu ziren Bina-kako Aizkolari Txapelketaren bigarren finalerakoak. Kasu honetan Donato Larretxea eta Xabier Mindegia Anjel Arrospide eta Joxe Ugarteburuaren aurka lehiatu ziren eta lehenengo bikoteak lortu zuen garaipena 9-4ko emaitzarekin. Beraz, Floren Nazabal eta Juan Jose Erdozia izango dituzte aurrez aurre otsailaren 26an 22:30ean Azpeitian izango den final handian. Final honetan Nazabal eta Larretxea, banakakoan egungo txapel-dun eta txapel-dunordea, berriro lehiatuko dira.

Bestalde, Arabako Villanueva de Valdegovia herrian izan zen finalerakoan ez zen sorpresarik izan eta espero zena gertatu zen.

Arrospide leaburuarra eta Ugarteburu lehia irekia egitea erabaki zuten eta oso egur gogorra ipini zuten 5 puntuko baloia duen azken txanda librerako. Ez zitzaizkien bezala atera estrategia eta puntuak aurkako bikoteak eman zituen proba erabakior honetan.

Azkenean, Larretxea eta Mindegia 21 minutu eta 19 segundo behar izan zituzten, minutu eta 39 segundoko alde atera zitelarik aurkari.

IBARRALDEA ▶

Ludoteka eta udalekuetarako begiraleak

Gaztelu eta Belauntzako udalek jakinarazi nahi dute ludotekak eta udaleku irekietan lana egiteko begiraleak kontratatuko dituztela. Lan honetarako interesa duenak Gazteluko eta Belauntzako udalekueetara joan beharko du. Bertan eskatu ahaliko dira oinarriak eta instantzia eskaera. Bestalde, izena emateko epea gaur hasi eta datorren otsailaren 24an amaituko da.

ALEGIA ▶

Etxebizitza eskaera lantzeko enpresa

Alegiako Udalak etxebizitza politika aztertzerako garaian, ezinbestekoa ikusi du herrian etxebizitzaren beharra eta eskaria ezagutzea. Horretarako enpresa berezitu bat kontratatu du, galdetegi baten bitartez informazio jasotzeko. Gai honek eragiten dien herritarren parte-hartzea eskatu du Udalak eta horretarako bihar baino lehen udaletxean izena emateko aukera izango da.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: ennio@inmoennio.com
www.inmoennio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m²ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Anoeta. 60 m². Logela, egongela,

sukaldea, bainugela.

Berokuntzarekin. 192.325 euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trasteleku eta garajearekin.

Donostia. Sagues auzoan etxebizitza salgai igogailuarekin. Eguzkitsua.

Ibarra. Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

Ibarra. Euskal Herria kalearen hasieran garaje itxia salgai.

Ikaztegieta. Sei etxe abikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko modukoa!

Legorreta. Pisu merkea, 3

logelarekin, sukaldea, egongela eta bainugela (berritua). Berokuntza.

142.440 euro!

Orendain. Eraikuntza berriko etxe

bifamiliar zoragarria salgai. Portxe eta lorategiarekin. Ikusgarria!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela.

Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera.

Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaro auzoan oso egoera onean dauden etxebizitza salgai.

Tolosa. Belate auzoan hiru logela eta bi bainugela. Berritua.

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin. Aukera paregabea!

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, gutziz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen Etorbidean gutziz berritutako etxebizitza. Ikustekoa!

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Lurre inguruan gutziz berritutako bi logelako etxebizitza.

Tolosa. Larramendi. Orain dela gutxioko eraikuntza. Bi logela, sukaldea, egongela eta trasteleku.

Tolosa. Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Larramendi. 3 logela, egongela, sukalde berritua. 2 bainugela. Igogailua.

Tolosa. Nafarroako Etorbidean gutziz berritutako hiru logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Tolosa. Santa Clara, 111 m²ko etxebizitza ederra, igogailuarekin, 4 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Ikuspegi ederrak.

228.385 euro.

Tolosa. Agintari kalea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

Trasteleku eta berokuntzarekin.

Tolosa. Trinkete auzoan. Hiru logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai. Egongela ederrarekin. Ezin hobeto!

Tolosa. San Frantzisko ibiltokian 46 m²-ko lokal komertziala.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Villabona. Larrea auzoan eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Zizurkil. Ennio Bidea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Trasteleku pisuan eta ganbara. Ezin hobeto!

EUSKARA ▶

Euskara Nafarroa osoan hizkuntza ofiziala izan behar dela aldarrikatuz

Elkarretaratzea egin dute Oinarriak-ek eta Leitzako Euskara Batzordeak deituta; euskaraz hitz egitea, nonahi eta noiznahi erabiltzea beharrezko eta funtsezkotzat jotzen dute, gure hizkuntza biziko bada

JAIONE ASTIBIA

Ostiral iluntzean egin zuten elkarretaratzea Leitza eta Aresoko euskaltzaleek, euskara Nafarroa osoan hizkuntza ofiziala izan dadin eskatuz, nafar guztion ondare izanik, guztiok euskaraz bizitzeko aukera berak izan eta hizkuntz eskubideei dagokienez herritarron mailakaketak ekiditeko berme bakar modura joz.

Horrela bada, *Euskara ofiziala Nafarroa osoan* zioen lemareki bat eginez, hainbat herritar bildu zen Leitzako plazan, Oinarriak-ek eta Leitzako Euskara Batzordeak deituta. Bildutakoen artean ziren Aresoko nahiz Leitzako ordezkari publiko zenbait, Euskara Batzordeko eta guraso elkarteko kideak, herriko komunikabide-etako langile, eskolako ordezkari, eta abar. 50-60 bat lagun bilduta egon ziren ordu erdi inguruz, giro hotza eta euria ari bazituen ere.

Elkarretaratzea bukatutzat jo baino lehen, euskararen ofizialtasuna aldarrikatzen zuen agiria irakurri zuten, hain zuten ere, ildo horretatik, botere publikoei egin zizkieten eguneko eskaerak, «bereziki Nafarroako Gobernuari» adierazi zuten, «harena baita hizkuntza normalizazioaren ardura», argudiatu zuten. Baina eskaera «herritar guztiei ere», luzatu zieten «euskararen alde



Leitzako plazan egin zuten elkarretaratzea Leitza eta Aresoko euskaltzaleek, euskara Nafarroa osoan ofiziala izatea eskatuz. Ekimenak iraun zuen bitartean, ESletako patruila bat bertan izan zuten eta agiria irakurtzeko garaian autoaren motorra biztu zuten, entzutea galeraziz. JAIONE ASTIBIA

egin dezaten», dei eginez. Gure hizkuntzaren etorkizuna kolokan dagoela-eta, «ezinbestekotzat» jo zuten herritar ororen euskararekiko aldeko jarrera mantentzea euskararen ofizialtasuna lortuko bada «horretarako oso garrantzitsua da guk gerok ere gure hizkuntza eskubideak toki guztietan aldarrikatzea», argudiatu zuten eta «batez ere hizkuntza nonahi

eta noiznahi erabiltzea», baieztatu, eskari irmoa erantsi. Beraz, agintarien egitekoa badela argi utziz, herritar guztion ardura ere badela adierazi zuten, hizkuntza erabiltzea.

Noski, hizkuntza bat erabili ahal izateko baliabideak eta hizkuntza eskubideen bermea ahalbidertzeko, hizkuntza hori ofiziala izatea derrigorrezko neurria da. Nafarroan eus-

kararekin ez da horrela gertatzen, ordea. Mendialdean bakarra da ofiziala, gainerako eremuetan ez. «XXI. gizaldian, oraindik ere, bertakoa den hizkuntzak ofizial izan behar duela eskatu eta aldarrikatu beharra dago oraindik ere», argitu zuten, lurralde osorako eskatu ere, izan ere «ez zaigu bidezko iruditzen nafarrak kategoriaz ezberdinetan sailkatzea», zio-

ten, «euskara nafar guztion hizkuntza izanik, guztiontzat behar ditugulako hizkuntza eskubideak» ere argudiatuz: «Nafarroa osoko herritar guztioi dagozkigu, [euskara] ezagutzeko eta ikasteko eskubidea batetik, baina baita erabiltzeko eskubide ere». Horrela, bada, Nafarroa osorako aldarrikatu zuten euskararen ofizialtasuna.

Benetakoa

Ofizialtasuna bai, baina hori benetakoa izatea eskatu zuten, bildutakoek aditzera eman zuten agirian. Herritarron hizkuntza eskubideak aitortze hutsaz gain, «eskubide horiek bete daitezten bitartekoak jartzea ere bada ofizialtasuna», zioten, «ofiziala izate hutsak eskubide guztiak errespetatuko direnik», ez omen duelako bermatzen. Hori frogatzeko, Leitzaldean euskara ofiziala izanagatik ere gertatzen diren hizkuntz eskubideen urraketan hainbat adibide ekarri zituzten gogora, hala nola «mediku erdalduna dugu; Nafarroako Gobernuak agiriak gaztelania hutsez bidaltzen dizkigu; Nafarroako Administrazioaren zerbitzuaren beste hainbeste...». Beraz, euskararen ofizialtasun hori «erreala izan dadila» eskatu zuten, horretarako «behar den hizkuntza politika abian jarri».

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTY KIROLAK

honetekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 15a, asteartea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

8

hotzena

6

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: bai

Albi: bai

Pagomari: bai

Igaratza: bai

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurarritza, Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Kultur Etxean eskulanak egiten ikasteko tailerra antolatu dute. Izena emateko azken eguna, Kultur Etxean bertan.

Alegia. Euskal dantza ikastarorako izen-ematea zabalik 18a arte Ixkiña, Hilario-enea, Jubilatu-enea eta Etxeberría-enea tabernatan.

Aitzo. *Hamaika koloretan dantzan*, antzerki musikala Ertobxen 17:00etan.

Tolosa. Dima-Areatza mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek iganderako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, behea. 943 65 27 89).

Tolosa. KZguneak Internet ikastaro hauek antolatu ditu: 21etik 25era 9:00etatik 13:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea bertan.

Villabona. *Drogomenpeko-tasunaren prebentzioa* hitzaldia Gurea aretoko erakusgelan 18:00eta. Jesusen Bihotza Ikastolak antolatuta gurasoentzat.

Villabona. Europako Konstituzioaz mitina Gurean 20:00etan. Ezezkoaren aldeko ekimenak deituta.

Villabona. Urduña-Garobel Artziniega irteera egingo da, igandean. Izena emateko, deitu 943 69 44 58ra edo Aizkardiren lokalera azaldu, ostegunean, 21:00etatik 22:00etara.

Zizurkil. Korrika batzordekoek bilera Abulondo Kultur Etxean 19:00etan.

ERAKUSKETAK

Alegia. J. Manuel Oiartzabalen Himalayako argazkiak jubilatuen tabernan. Gaur azken eguna.

Tolosa. Isabel Mujikaren pintura erakusketak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Carmelo Ortiz de Elgea margolariaren azken lanak Aranburu Jauregian.

Tolosa. Txomin Txuekaren *Lurraren kolorea*, Chiapaseko argazkiak. Aranburu Jauregian.

ZINEMA

Tolosa. *Closer.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Ikuslearen eguna.

Oilarraren urtearen hasiera

TOLOSA ▶ Hogeit hamar txinatar adoptatutik gora eta bere familiak elkartu ziren larunbatean Hong-Kong jatetxean Urte Berria ospatzeko



Haur txinatarrek bere anai-arreba batzuekin batera joan zen larunbatean Hong Kong jatetxearen aurrean. IMANOL GARCIA

ERREDAKZIOA

Gipuzkoa osoko hogeit hamar txinatar baino gehiago eta bere senitartekoak elkartu ziren larunbatean Tolosako Hong-Kong jatetxe txinatarrean. Zein zen arrazoia? Urte Berriaren hasie-

ra ospatzea. Txinan Oilarraren Urtea hasi da. Otsailaren 8an zen, baina larunbatean egin zuten ospakizun festa. Horretarako Anichi elkarteak —Txinako haurrak adoptatu dituzten familiaena— egin zuen Tolosarako deialdia.

Guztira 90 bat heldu, denak

gipuzkoarrak, eta hogeita hamapiko haur elkartu ziren, gehienak txinatarrek, baina baita bere senideak ere, hemengoak edo beste jatorrieta-koak.

Topaketa honen helburua «bere jatorria eta ohiturak bizirik mantentzea» dela azaldu

dute elkarteko kideek. Haur hauek seme-alabatzat hartzearena esperientzia «ezin hobe» dela diote guraso hauek.

Horieta haur batzuk txinera klaseak jasotzen dituzte «berea ez baztertzeko». Bestalde, euskara eta gaztelania ondo menderatzen dituzte.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Haritz Aldazabal (Tolosa).
Gaur 10 urte.
Zorionak familiaren partetik.



AUPA ANDER
Estatu zapaltzaile bi, borroka bakar bat, zuen indarrarekin, laster eberat. Eutsi goiarri! Muxuak.



AUPA PELLO ETA JULEN
Txapeoaren lekukoa hartu duzue, borroka bitartez irabaztera goaz. Villabonako Batasuna.



HITZA,
zorion agurren
tarte

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoizetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!